

Gure proiektua sortzerako garaian baliabide desberdinak erabiliko ditugu: baliabide fisikoak baliabide intelektual eta giza baliabideak eta azkenik finantza baliabideak.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak erabiliko ditugu. Gure produktua sortu ahal izateko lehengaiak beharko ditugu. Honetaz gain makineria ere ezinbestekoa izango da lehengai horiekin gure produktua sortu ahal izateko. Makineriaz gain herramienta desberdinak ere ezinbestekoak izango dira. Biltegi bat ere beharko dugu gure produktu bukatuak bertan gorde ahal izateko, baita lehengaiak ere. Furgoneta edo kotxe bat ere edukiko dugu gure produktuak bezeroei eramateko. Langile batzuk kontratatuko ditugu gure produktua egin ahal izateko.

Jarraitzeko, baliabide intelektual eta giza baliabideak ere erabiliko ditugu. Hauen barruan gure ezagutzak egongo dira, baita gure sormena ere. Gure sormena ezinbestekoa da gure proiektua ahalik eta originalena eta gizartearentzat ahalik eta lagungarriena izateko, azken finean gure helburua ingurumenari laguntzea baita. Produktuak ere originala izan behar du bezeroak erakarri ahal izateko. Gure ezagutzak bestalde oso baliagarriak dira gure produktua diseinatu ahal izateko eta ondoren sortu ahal izateko. Giza baliabideen barruan azpimagarria da gure komunikaziorako erraztasuna. Honi esker bezeroengana errazago gerturatzeko aukera dugu eta gure produktua erraztasunez saltzen dugu. Teknologiarako erraztasunak ere ditugu eta hau baliagarria da sare sozialetan gure produktua saldu ahal izateko eta gure enpresaren instagram-eko kontu bat egiteko. Gure enpresa sortu dugun taldeak konpromezua eta gogoia erakusten dugu gure proiektuarekiko eta honi esker proiektua ondo aterako dela espero dugu.

Azkenik, finantza baliabideak ere erabiliko ditugu. Gure negozioa martxan jarri ahal izateko gure aurrezkiak erabiliko ditugu. Bakoitzak bere etxeko aurrezkiak erabiliko ditu eta ondoren behin etekinak lortzen hasten garenean diru hori ere erabiliko dugu. Gutxinaka hasiko gara eta gure produktua erabilgarria eta lagungarria izatea espero dugu. Gure aurrezkietaz gain, banku kreditu bat eskatuko dugu falta zaigun dirua lortu ahal izateko.